# kontzertua
# Concierto

Habanan jaioa, oso umetatik hasi zituen musikaren eta erritmoaren munduko ibilerak. 1993. urtean konfirmatu zen artista moduan: ekainean, Habanako Urrezko Boleroen Nazioarteko Festibalean hartu zuen parte, Isolina Carrillo mitikoa pianoan lagun zuela. Urte horretan bertan konfirmatu eta aitortu zuten Kuban artista gisa, eta irratiko eta telebistako *hit paradeko* lehen postuetan kokatzea lortu zuen. Errepertorioko zenbait pieza, gerora, bere lehen diskoan sartu zituen.

1999an, bere bosgarren albuma plazaratu zuen, "Cubaname" izenburukoa; hura ere, beste behin, Lucreciak berak produzitua eta zuzendua. Disko horretatik atera zen "Youkali" kantaren bertsioa, Weill eta Fernayrena. Pieza hori izan zen gai nagusia "Segunda Piel" filmean, Gerardo Verak zuzendua eta Ariadna Gil, Javier Bardem eta Jordi Mollá aktoreek protagonizatua.



Nacida en La Habana, empezó desde muy niña sus andanzas por el mundo de la música y del ritmo. 1993 fue el año de su confirmación artística: en el mes de junio, participó en el Festival Internacional Boleros de Oro de La Habana acompañada al piano por la mítica Isolina Carrillo. Fue ese mismo año su confirmación y reconocimiento en Cuba como artista, consiguiendo situarse en los primeros lugares del *hit parade* de radio y televisión. Varios de los temas de su repertorio formarían posteriormente parte de su primer disco.

Ya en 1999, publica su quinto álbum "Cubaname" donde Lucrecia una vez más, produce y dirige. De este disco, se extrae la versión de la canción "Youkali" de Kurt Weill y Fernay, que sirvió de tema central de la película "Segunda Piel" dirigida por Gerardo Vera y protagonizada por Ariadna Gil, Javier Bardem y Jordi Mollá.

**lucrecia**

martxoak 6 marzo · 22:30
Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea

Gazteria eta Festa Batzordea
Comisión de Juventud y Festejos

# enplegua
# empleo

## Lan bila zabiltza?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskueran jarriko dizkizugun dosierrak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez, gero, aukera galdu!

## ¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

# sarea
# red

## Gazteentzako Dokumentazioren eta Informazioaren Euskadiko Sarea

**Lasarte-Oriako Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen** barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu inguruiren zati dena.

Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaraztea da.

Informazio hori, Kulturetxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atenditzu, telefonoz eta posta elektroniko bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena.

Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: www.gazteinformazioa.net

## Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria** es un servicio público y gratuito que pertenece a la **Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi** y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca.

Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre...

Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan.

El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es www.gazteinformazioa.net

gazte informazioa

# ordutegiak
# horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa
oficina municipal de información juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00


Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92
gazteinfo@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org






ayuntamiento de lasarte-oria-ko udala
casa de cultura manuel lekuona kultur etxea

Lasarte-Oriako Udala – Ayuntamiento de Lasarte-Oria

# bekak / becas

## UDAN ERRESUMA BATUAN ETA IRLANDAN INGELESEKO IKASTAROAK EGITEKO LAGUNTZAK, BATXILERGO ETA ERDI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETAKO IKASLEENTZAT
## AYUDAS PARA CURSOS DE LENGUA INGLESA EN GRAN BRETAÑA E IRLANDA DURANTE EL VERANO PARA ALUMNOS DE BACHILLERATO Y DE CICLOS FORMATIVOS DE GRADO MEDIO

**Hezkuntzako, Kulturako eta Kiroleko Min.**
Beketako eta Hezkuntzaren Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusia
Tfno.: 91 3778352

**M. de Educación, Cultura y Deporte**
Subdirección General de Becas y Promoción Educativa
Tfno.: 91 3778352

**Edukia:**
2000 laguntza atzerrian ingelesa ikasteko egonaldiak egiteko. Hauek 2004ko udan egingo dira eta lau astekoak izango dira.

**Contenido:**
2000 ayudas para la estancia y realización de un curso de lengua inglesa, en Gran Bretaña e Irlanda, de cuatro semanas de duración en el verano de 2004.

**Epea:**
Martxoak 23.

**Plazo:**
23 de marzo.

**Iturria:**
2004-02-06ko 32. BOE, 5312. or.

**Fuente:**
BOE 32 del 06-02-2004, pág. 5312.

## 2004KO UDAN ATZERRIAN INGELESEKO, FRANTSESEKO EDO ALEMANEKO IKASTAROAK EGITEKO UNIBERTSITATE-IKASLEENTZAKO 1000 LAGUNTZA
## 1000 AYUDAS PARA CURSOS DE LENGUA INGLESA, FRANCESA O ALEMANA EN EL EXTRANJERO DURANTE EL VERANO DE 2004 PARA ALUMNOS UNIVERSITARIOS

**Hezkuntzako, Kulturako eta Kiroleko Min.**
Beketako eta Hezkuntzaren Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusia
Tfno.: 91 3778352

**M. de Educación, Cultura y Deporte**
Subdirección General de Becas y Promoción Educativa
Tfno.: 91 3778352

**Edukia:**
2004ko udan atzerrian gutxienez e asteko egonaldiak egin eta ingeleseko, frantseseko edo alemaneko ikastaro bat egiteko 1000 laguntza.

**Contenido:**
1000 ayudas para la estancia y realización de un curso de lengua inglesa, francesa o alemana en el extranjero de, al menos, tres semanas de duración en el verano de 2004.

**Epea:**
Martxoak 23.

**Plazo:**
23 de marzo.

**Iturria:**
2004.02.06ko 32. BOE, 5317. Orr.

**Fuente:**
BOE 32 del 06-02-2004 pág. 5317.

## UDAN ATZERRIAN INGELESEKO, FRANTSESEKO EDO ALEMANEKO IKASTAROAK EGITEKO LAGUNTZAK, GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETAKO IKASLEENTZAT
## AYUDAS PARA CURSOS DE LENGUA INGLESA, FRANCESA O ALEMANA EN EL EXTRANJERO DURANTE EL VERANO PARA ALUMNOS DE CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR

**Hezkuntzako, Kulturako eta Kiroleko Min.**
Beketako eta Hezkuntzaren Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusia
Tfno.: 91 3778352

**M. de Educación, Cultura y Deporte**
Subdirección General de Becas y Promoción Educativa
Tfno.: 91 3778352

**Edukia:**
40 laguntza atzerrian ingelesa, frantsesa edo alemana ikasteko egonaldiak egiteko. Hauek 2004ko udan egingo dira eta gutxienez 3 astekoak izango dira.

**Contenido:**
40 ayudas para la estancia y realización de un curso de lengua inglesa, francesa o alemana en el extranjero, de al menos tres semanas de duración en el verano de 2004.

**Epea:**
Martxoak 23.

**Plazo:**
23 de marzo

**Iturria:**
2004-02-06ko 32. BOE, 5312. or.

**Fuente:**
BOE 32 del 06-02-2004, pág. 5312.

# ikastaroak / cursos

## FRIGORISTA KOMERTZIALA
## FRIGORISTA COMERCIAL

**Lasarte-Oriako Udala**
Prestakuntza eta Enpleguko Arloa
20160 Lasarte-Oria
Tfno: 943 376183

**Ayuntamiento de Lasarte-Oria**
Área de Formación y Empleo
20160 Lasarte-Oria
Tfno: 943 376183

INEMen Zentro Kolaboratzailea den aldetik, Lasarte-Oriako Udalak, martxoaren 15etik aurrera, prestakuntzako ikastaro bat egingo du langabeentzat. Emango den espezialitatea: FRIGORISTA KOMERTZIALA. Ikastaro horretan parte hartzeko interesaturik bazaude, Udaleko Prestakuntza eta Enpleguko Arloaren bulegora jo dezakezu (Udalaren Ofizio-Eskolan dago, Kale Nagusia 56ko 1. solairuan; tel.: 943-376183), edota zuzenean Enpleguko Bulegora (tel.: 943-366032), non informazioa zabaldu ahalko baituzu, ikastaro honi nahiz beste batzuei buruzkoa, bai eta eskabidea formalizatu ere.

Como Centro Colaborador del INEM, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria desarrollará a partir del día 15 de marzo un curso de formación para desempleados/as. La especialidad a impartir es: FRIGORISTA COMERCIAL. Si estás interesado/a en tomar parte en este curso, puedes dirigirte a la oficina del Área de Formación y Empleo del Ayuntamiento, situada en la Escuela de Oficios Municipal, kale Nagusia, 56 - 1ª planta ( Tf.:943-376183), o directamente a la Oficina de Empleo ( Tlf. 943-366032) donde podrás ampliar la información, sobre éste y otros cursos, así como formalizar tu solicitud.

# jarduerak / actividades

## ATERPEKIDEEN TXARTELA
## CARNET DE ALBERGUISTA

**Lasarte-Oriako Udala**
Gazteen Informaziorako Bulegoa
20160 Lasarte-Oria
Tfno: 943 376181

**Ayuntamiento de Lasarte-Oria**
Oficina de Información Juvenil
20160 Lasarte-Oria
Tfno: 943 376181

Gazteen Aterpetxeetako Txartel Nazioartekoak (REAJ-IYHF) aukera ematen dizu Espainiako 204 aterpetxeetatik edozein eta Gazteentzako Aterpeen Federazio Nazioartekoak (IYHF) dituen 5000 baino gehiagotatik edozein erabiltzeko. Txartela eskatzeko, aski duzu zeure nortasun-txartela aurkeztea, inprimakia betetzea eta dagozkizun tasak ordaintzea.

Aterpekideen txartelak mota bat baino gehiagotakoak dira:

-Gazteentzakoa, 26 urtetik beherakoentzat;
-Helduentzakoa, 26 urtetik gorakoentzat;
-Taldekoa, 10 lagun edo gehiagoko taldeentzat; eta
-Familiakoa, 14 urtetik beherako seme-alabak ere sartzeko.

Txartela Gazteentzako Aterpetxeetan beretan edo GIBan lor dezakezu.

El Carnet Internacional de Albergues Juveniles REAJ-IYHF te permite tener acceso a cualquiera de los 204 albergues españoles y a los más de 5000 de la Federación Internacional de Albergues Juveniles (IYHF). Para solicitarlo sólo necesitas presentar tu DNI, rellenar un impreso y abonar las tasas correspondientes.

Existen varias modalidades del carnet de alberguista:

-Juvenil, para menores de 26 años;
-Adulto, para mayores de 26;
-Grupo, carnet colectivo para un mínimo de 10 personas; y
-Familiar, donde se puede incluir a los hijos menores de 14 años.

Puedes conseguir el carnet en los propios Albergues Juveniles y en la OIJ.

# lehiaketak / concursos

## LASARTE-ORIAKO LITERATURAKO XVIII. LEHIAKETA, 2004. URTEA
## XVIII. CONCURSO LITERARIO DE LASARTE-ORIA 2004

**Manuel Lekuona Kultur Etxea**
**Tfno. 943 376 181**

**Casa de Cultura Manuel Lekuona**
**Tfno. 943 376 181**

1. Lehiaketan parte hartzen ahalko dute 1988. urtean eta aurrekoetan jaiotako Euskarazko zein Gaztelaniazko idazleek. Lasarte-Orian erroldaturik daudenek halaber izango dute espezialitate bakoitzeko "Lasarte-Oria" sariak eskuratzeko aukera. Aurreko ekitaldietan sarizta-turikoak ezingo dira aurkeztu espezialitate sariztatuetara.

2. Aurkeztutako idazlanek argitara gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute. Ezingo dira izan oraindik epaia eman ez duen beste ezein lehiaketatara aurkeztutakoak, eta ezingo dira ezein argitaletxerekin konprometiturik egon. Idazlanak hiruna kopiatan aurkeztu beharko dira, tarte bikoitzez eta alde bakarrez mekanografiaturiko orrietan. Idazlanek izenburua soilik eduki beharko dute, egilea identifika dezakeen xehetasunik gabe, beraz. Jatorrizkoarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira.

3. Jatorrizkoak aurkezteko epea maiatzaren 14an 13:00etan amaituko da. Jatorrizkoak Manuel Lekuona kultura-etxeko bulegoan entregatuko dira.

4. Epaimahaia urrian bilduko da epaia emateko.

1. Podrán participar en el Certamen escritores en Euskera o Castellano nacidos en el año 1988 y anteriores. Las personas empadronadas en Lasarte-Oria podrán optar también a los premios "Lasarte-Oria" de cada especialidad. Los premiados en Ediciones anteriores no podrán presentarse a las especialidades premiadas.

2. Las obras presentadas serán inéditas y originales. Las mismas no podrán haber sido presentadas a ningún otro concurso del que aún no se haya dado el fallo, ni estar comprometidas con ninguna editorial. Los trabajos habrán de presentarse por triplicado en folios mecanografiados a doble espacio y por una sola cara. Las obras deberán contener solamente el título, careciendo por tanto de detalles que puedan identificar al autor. Acompañando a los originales y en sobre cerrado se incluirán los datos del autor.

3. El plazo de entrega de originales termina el 14 de mayo de 2004 a las 13 horas. Los originales se entregarán en las oficinas de la "Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea".

4. El Jurado se reunirá y dictaminará su fallo en el mes de octubre.

**SARIAK**

Saria: Euskarazko Ipuina (gai librea, gehienez 10 orri). Diploma eta 800 euroak.
Saria: Euskarazko Ipuineko"Lasarte-Oria" Saria (gai librea, gehienez 10 orri) Diploma eta 250 euroak.
Saria: Euskarazko Poesia (gai eta metrika libreak, gutxienez 300 bertso-lerro). Diploma eta 800 euroak.
Saria: Euskarazko Poesiako "Lasarte-Oria" Saria (gai eta metrika libreak, gutxienez 300 bertso-lerro). Diploma eta 250 euroak.
Saria: Gaztelaniazko Ipuina (gai librea, gehienez 10 folio). Diploma eta 800 euroak.
Saria: Gaztelaniazko Ipuineko "Lasarte-Oria" Saria (gai eta metrika libreak, gutxienez 300 bertso-lerro). Diploma eta 250 euroak.
Saria: Gaztelaniazko Poesia (gai eta metrika libreak, gutxienez 300 bertso-lerro). Diploma eta 800 euroak.
Saria: Gaztelaniazko Poesiako "Lasarte-Oria" Saria (gai eta metrika libreak, gutxienez 300 bertso-lerro). Diploma eta 250 euroak.

**PREMIOS**

Premio: Cuento en Euskera (tema libre, máximo 10 folios). Diploma y 800 euros.
Premio: "Lasarte-Oria" de Cuento en Euskera (tema libre, máximo 10 folios) Diploma y 250 euros.
Premio: Poesía en Euskera (tema y métrica libres mínimo 300 versos). Diploma y 800 euros.
Premio: "Lasarte-Oria" de Poesía en Euskera (tema y métrica libres mínimo 300 versos). Diploma y 250 euros.
Premio: Cuento en Castellano (tema libre, máximo 10 folios). Diploma y 800 euros.
Premio: "Lasarte-Oria" de Cuento en Castellano (tema libre, máximo 10 folios). Diploma y 250 euros.
Premio: Poesía en Castellano (tema y métrica libres, mínimo 300 versos). Diploma y 800 euros.
Premio: "Lasarte-Oria" de Poesía en Castellano (tema y métrica libres, mínimo 300 versos). Diploma y 250 euros.

**Oharra:** Aipamen honek ez ditu ordezten oinarri ofizialak, kultura-etxean eskura baititzakezu.

**Nota:** Esta reseña no sustituye a las bases oficiales que puedes recoger en la Casa de Cultura.

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea